

IHES EGIN

Lehenik Legea izan zen. Hura zen debeku eremu bat ezartzen zuena, legez-kanpokotasunen gestioa ahalbidetzen zuena. Ondoren Araua, Legea iristen ez zen lekuetan hedatu zen zirrikitu guztiak beteaz, bere helburua bai espazioa eta bai denbora kontrolatzea zelarrik. Hala ere, erritu/errutina dualitatea izan da geure bizitzaren zentzua antolatu duena. Errutina zentzuaren jabetza kendu digun prozedura formal bat da zeinetan gu geu bertan inskribatzen garen. Era berean, erritua ere prozedimentu formal bat da, nahiz eta kasu honetan errituaren zentzuaren jabe geu izan. Edo hala iruditzen zaigu behintzat. Goizean goiz kafe bat hartzea erritutzat har genezake. Edo erosketak egitera joatea. Egunerokotasun opresibotik aldentzeko asmatzen ditugun errituak amaigabeak eta mugatzen zailak dira. Guztiok dakigu, ordea, errutina zer den eta errutina konkretu horiek oso antzekoak dira. Erritua askatasun momentu baten gisa azaltzen zaigu errutinaren aurrean. Errutinatik erritura irteten dugu, zeinek ezohikotasuna iradokitzen duen nahiz eta errepikatua izan.

ZEURE IXILTASUNA EROSTEN DUGU.

AHAZTU, AHAZTU, AHAZTU...

EZ ZAITEZ OPORRIK GABE GERATU.

Ezartzen zaigun Legearen aurka, baztertzeko duelako normalizatzen duen Arauaren aurka, erritu/errutina dualitateak kodigo binario batera murriztu ezin den logika lauso batek bezala funtzionatzen du. Horregatik erritu/errutina dualitateak autonomia eskaintzen digu. Hobeto esanda, autonomia dugunaren sentsazioa eskaintzen digu. Zoritxarrez, horrela ez dela badakigu. Dualitatearekiko ez dago ustekabekorik. Arrazoi horregatik esan genezake erritu eta errutinaren bitartez mobilizazio globalean "libreki" sartzen garela. Dualitate honek konformatzen gaitu. Ez, baina, bizi behar dugun bizitza bat bezala, baizik eta gestionatu behar dugun bizitza prekario bat bezala. Bizitzea atsedean ezin hartzea da, bizitza mobilizatu hau izateari uko

URREA EROSTEN DUT

Erlojuak, bitxiak. Preziorik onenean eta eskura ordaintzen dugu.

EZ ZAITEZ OPORRIK GABE GERATU.

egiten badiogu (kurrikulum on bat izateari, proiektuak hasteari...) heriotz sozialean hondoratzen baikara. Horregatik etsipenez faltan sentitzen dugu atsedean hartzeko Kanpoalde bat, eta beste guztiaren gainetik atsedean hartzea menperaturik gaituen mobilizaziotik deskonektatzea da. Zehazkiago, funtsean, guk geuk elikatzen dugun mobilizaziotik deskonektatzen dugu. Ahalik eta azkarren ihes egiten saiatzen gara. Eta ihesa guztiontzako berbera da: hondartza urrun bat. Hau da geure paradisuaren errepresentaziorik bikainena. Zerbaitetan sinetsi ahal izateko denborari betierekotasun une bat ateratzea. Zeruertzak begiratzea. Zeruertzak aspaldi desagertu egin da, ordea. Hondartza bustitzen zuen itsaso turkesa telebista plato bat bilakatu da. Gerran gaude. Bizi dugun bizitza honen barnean existitzen den zeruertza bakarra zaharkitzapen programatuak eskeintzen diguna da.

ZEURE BIZITZA EROSTEN DUGU.

OSORIK EDO ZATIKA.

ERABAKI ZEUK NAHI DUZUNA.

EZ ZAITEZ OPORRIK GABE GERATU.

EL PRESENTIMENT

N.13

www.elpresentiment.net

01.08.2012